

Kattalin Miner

“Aukera askatasunak ez ote gaitu beste modu batera itotzen?”

Egilea: **Irati Sarasua Arabaolaza.**

Igartza Saria irabazi ostean “Nola heldu naiz ni honaino” liburua kaleratu du Kattalin Miner kazetari hernaniarrak.

Bere belaunaldiko emakume batek gizarteari buruz duen ikuspegia eta bere baitako kontraesanak dira bertan islatutakoak. “Aukeren belaunaldian” jaiotako hainbatek bizitako krisiak azaleratu ditu nobelan.

Igartza Saria irabazi ostean, jada argitaratu duzu “Nola heldu naiz ni honaino” nobela. Zergatik aurkeztu zenuen proiektua sarietara? Aspalditik nuen buruan nobela bat idaztearen mamu hori, eta aitzakia bezala Igartza hartu nuen, nire buruari muga bat eta egin behar bat jartzeko. Lagin hori hain gustura idatzi ostean, irabazi edo ez, idazten jarraitzea erabaki nuen.

Idazten duzun lehen nobela da. Aipatu duzu gustura sentitu zinela, baina nolakoa izan da denbora tarte hori? Idazteko momentuak nolakoak izan dira? Nola sentitu zara? Esperotakoa izan da?

Nire lehen lan literarioa zen, esan dugun moduan, beraz, ez nuen metodorik, nire buruari ondo zegozkion metodoak ere asmatu behar izan ditut. Egia da ni bat-batean dena botatzekoa naizela; horregatik, idazteko ihesaldiak egiten nituen, hiru egunetan dena botatzen nuen, ondoren utzi eta berriro ere ihes, idaztera. Horrela egin dut, kolpeka. Egia esan, asko gozatu dut. Zuzenketen tarte gogoragoa izan da.

“Krisi” momentuak izan dituzu ala bidea erraz egin du istorioak?

Urte honetan guztia nahiko ongi joan da. Baina egia da entregatu ostean, maketatu ostean, zalan-tza horiek sortu zitzaizkidala; jendeak irakurtzeko gogo nuelako, lehenengo feedback-ak jasotzekoa. Orduan izan nuen “*ai ama, honek ez du zentzurik, zer egin dut*” burutik pasatu zitzaidan momentua. Baina segituan gainditu nuen.

Nobela honekin zein helburu zenuen? Zer kon-tatu nahi zenuen?


Intuzio edo hipotesi bat banuen buruan, gure belaunaldiak erabakiak hartzeko edo aukeratzeko duen gaitasunaz hausnartu nahi nuen. Kritika batzuk egin nahi nituen. Baina, idazten joan naizen heinean definitu dira ukitu ditudan gaiak: familia, lana... Intuzio batzuk banituen, baina gerora definitu dira beste gauza batzuk. Esan nahi nuena esan nahi nuen moduan esan dut eta horrekin pozik nago.

Gure belaunaldia noraezean ikusten duzu eta ikusi duzu idazten aritu zaren bitartean?

Gehiago izan da gerora izan dudak konfirmazio bat. Nik banuen nire gertukoak eta ni neu ikusita sentsazio bat: aukera izugarriak ditugun belaunaldi bat gara, baina aukera askatasun horrek ez ote gaitu beste modu batera itotzen? Erabaki beharra, definitu beharra nor garen, zer nahi dugun... Eta hori guztia kapitalismoak eskainitako abaniko zabal horretan. Esperientziak pilotzearen belaunaldi bat ere bagara. Intuiziotik jo nuen horra, eta adina ezberdineko jendeak esan dit oso identifikatua sentitu dela kontatutakoarekin, beraz, ulertu liteke badela belaunaldi arteko kontu bat.

Zure sentsazioa zen batetik, bestetik inguruan ikusten zenuena... Kattalin islatuta dago liburu honetan?

Nire ingurukoek ikusi dute Kattalin, eta ikusi nahi duenak topatuko nau. Gehiago esaldietan, hainbat kritiketan... Baina egia da pertsonaiak bizi



duen krisia ez dudala bizi izan, ez dela nirea, ez dut hori pasa, beste guztiek bezala beste batzuk pasatu ditut, baina hori ez. Hala ere, gauza askotan izango du niretik, noski.

Nor da Jesabel? Eta nola ikusten du gizartea berak? Nola ikusten ditu besteak?

30 urtetik gorako neska bat da. Bera da protagonista. Badu, hasieran bereziki, puntu prepotente eta ziniko bat. Munduari begiratzeko dio esanez, “zuek ez dakizue nola heldu zareten horraino, ez duzue arrazoirik, eta nik ordea nire bizitza eta egin nahi dudana erabaki dut”.

Bera oso harro dago, familiak gorroto ditu, lankideak gorroto ditu... Guztia isilpean... Baina krisi bat sortzen da bere barnean konturatzen denean ez dituela hain argi gauzak, edo ez duela uste bezain erraz erabaki.

Gainontzekoengatik zerk bereizten du bera eta zer du berdina?

Krisi handienetako bat da konturatzea ez dela hain berezia, uste baino normalagoa izan daitekeela eta ez dela ezer gertatzen. Normaltasuna gorroto duen norbaiti paniko erreala eman diezaioke normaltasun horren barruan bere burua kokatzeak. Hala ere, Jesabelek baditu puntu bereziak; bakarrik bizi da, harro dago horretaz, bere burua nahiko emakume autonomotzat dauka eta horri eusten dio. Bereziak bestearen aurrean.

Hasieratik zenuen argi bera nolakoa izango zen edo liburua idazten joan zaren neurrian berak ere garapen bat izan du?

Asko eboluzionatu da. Lehenengo pertsona dago liburua idatzita, eta idazleek askotan esaten dutena pasatu zait; pertsonaiak bizitza eta izaera propio bat hartu ditu. Gauza batzuk eginarazten dizkionean edo definitzen zoazenean, jada forma propioa hartzen du eta ezin duzu aldatu. Hala ere, estimuan dut Jesabel, eta asko gozatu dut berarekin.

Zein harreman du gainerako protagonistekin?

Osaba, hasiera batean, herentzia bat jasotzeko aitzakia bat zen. Gero, pertsonaiak zerbait bazuela pentsatu eta oso garrantzitsua bihurtu zen. Ane da desagertutako neska. Eta Lucia Jesabelen neska lagun ohia da. Jesabelen funtzionamendua ulertzeko klabea da. Luciari botatzen dio gauza askoren errua, konturatzen den arte berak ere baduela nahikoa ardura. Ispilu joko polit bat egiten da bien artean.

Protagonistek norbait gogorarazten dizute?

Ez dira ezagutzen ditudan pertsonengan sortutako pertsonaiak, baina egia da nolakotasun batzuk jartzen dizkionean beti etortzen zaizki-

zula ezagutzen dituzun pertsonen erreferentziak burura.

Desagertuta dagoen neska bat, Ane, ere bada protagonista liburuan. Zergatik sartu duzu desagertutako pertsona baten istorioa?

Jesabelek ez du ezagutzen, egunkari eta komunikabideen bitartez jarraitzen ari da kasua, oso gertutik. Ez dakit zergatik, baina asko mugitzen du bere barrua. Nire ustez desagertu bat sartzeak gauza asko esan nahi ditu; erabakien inguruko liburu bat zen heinean, desagertu bat da aukera gehien zabalitzen dituen, norbait desagertzen denean gertatu denari buruz zenbat aukera dauden zabalik... Bere borondatez joan ote den, bere buruaz beste egin duen, ihes egin duen...

Aukera asko sortzen dira eta modu batean Jesabel kasu hori jarraitzen ari da, modu nahiko obsesiboan. Paralelismoak egiteko balio izan dit istorio horrek, eta halako hari bat jarraitzeko ere bai.

Aktualitateko orrialdeetan ikusten ditugu egun desagertueneri lotutako albisteak ere.

Ez dakit desarpenekin, baina askotan gertatzen zait kasu batek harrapatu –ez du dramatikoia izan beharrik- eta jarraitzen egotea, gauzak ulertu nahian. Hodei Egiluzen kasua esaterako, urte eta piko horretan, asko jarraitu nuen, asko hunkitzen ninduen eta barrua asko mugitzen zidan. Uste dut horrek ere eragina izan zuela nigan. “Norbait desagertzea zer ote den”, esaten nuen.

Izenburua eta amaiera izan dira idaztea gehien kosta zaizkizunak. Zergatik?

Izenburua ez nuen pentsatu ere egin. Zirriborroa bidali baino bost minutu lehenago esan nuen “*ai ama, ez dut izenbururik!*”. “*Kafe beteak*” izena jarri nion, ez nuen gehiegi pentsatu, eta hala geratu zen liburua amaitu nuen bitartean. Maketatzea soilik falta zenean, Xabier Mendiguren editoreak “*ez nau konbentzitzen, beste zerbait pentsatu beharko duzu*”, esan zidan. Munduko lanik zailena iruditu zitzaidan orduan. Egun batean Anari Alberdik esaldi hori oparitu zidan, eta gustu handiz jarri nion.

Amaierarako aukera ezberdinak nituen, Iratxe Retolaza eta Danele Sarriugarte edizio lanetan laguntzen egon dira, eta “*hau da ona*” esan zuten arte frogatzen ezberdinak egin nituen. Batzuk moralista goak ziren, beste batzuk luzeegiak... Motzena, sinpleena eta zuzenena iritsi zen, eta “*hau da*” esan zidaten.

Kritika bat baino gehiago egiten dizkiozu gizaritari liburuan zehar. Norbera ondo sentitzeko beste desgraziei begiratzeaz hitz egiten duzu, besteak beste. Bikote batzuek “gutasunetik” hitz

egiteko duten ohiturari ere bai.

Pertsonaia oso konbentzituta dago bere erabakiekin, baina horretarako gehienok gurearen kontrako erabakia hartu dutenei begiratu eta gure burua berrestea behar izaten dugu askotan. Pertsonaia horretan dabil. Horregatik kritikatzan ditu horrenbeste familiak edota bikoteak. Ezin ditu bikoteen funtzionamenduak jasan. Ironia puntu handiarekin dago eginda, barregarria baita Jesabelek besteei dien gorrotoa ere. Bere hautua ona dela berresteko besteena behar du.

Hernaniko zein herritarrek irakurri beharko luke liburua? Nori zuzenduta dago?

Ez dut nork irakurriko zuen pentsatu idatzi dudan bitartean, horrek asko baldintzatuko ninduelako. Nahiko aske idatzi dut zentzu horretan. Hernanin nork irakurri? Irakur dezala irakurzaletasuna duenak eta ez duenak ere bai, irakurterraza baita.

Kuxkuxeatu nahi duenak ere egin dezala, horretarako baitaude herriak!

Zein da jaso duzun kritika onena eta gogorrena?

Jendea oso noblea da eta inork ez dit kritika gogorrik egin, aurpegira behintzat. *"Hau gehiago gustatu zait eta hori gutxiago"*, bai. Onenari dagokionez, pentsatzen nuen nire belaunaldiko jendea sentituko zela identifikatua, eta jende heldua etorri eta identifikatua sentitu dela eta gozatu duela esaten entzutea oso polita da. Ikusten baituzu badaudela elementu amankomun batzuk adinagatik aldatzen ez direnak.

Beste libururik idaztea baduzu buruan?

Kontatzeko zerbait badut berriro joko dut genero honetara, ziur!

